



# Turismo-bulegoan

Michael Turismo-bulegora joango da. Euskal Herria ezagutu nahi du eta informazioa nahi du: lekuak, ohiturak, gastronomia. Baina, horretarako, asteko egunak ikasi behar ditu.

Michael visite l'Office de Tourisme. Il veut connaître le Pays Basque et il désire s'informer des lieux intéressants, du style de vie et de la gastronomie. Pour cela, il doit apprendre les jours de la semaine.



## irakurmena

Testua entzun aurretik ikasi asteko egunak.  
Apprenez les jours de la semaine, avant d'écouter le texte. Observez ce calendrier et dites-nous le nom des jours en basque.

### ASTEKO EGUNAK

1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14	8 9 10 11 12 13 14	8 9 10 11 12 13 14	8 9 10 11 12 13 14
15 16 17 18 19 20 21	15 16 17 18 19 20 21	15 16 17 18 19 20 21	15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25 26 27 28	22 23 24 25 26 27 28	22 23 24 25 26 27 28	22 23 24 25 26 27 28
29 30 31	29 30 31	29 30 31	29 30 31
<b>OSTIRALA</b>	<b>ASTEAZKENA</b>	<b>ASTEARTEA</b>	<b>LARUNBATA</b>

1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14	8 9 10 11 12 13 14	8 9 10 11 12 13 14
15 16 17 18 19 20 21	15 16 17 18 19 20 21	15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25 26 27 28	22 23 24 25 26 27 28	22 23 24 25 26 27 28
29 30 31	29 30 31	29 30 31
<b>ASTELEHENA</b>	<b>IGANDEA</b>	<b>OSTEGUNA</b>



# ariketa

Lotu bi zutabeak. Reliez les deux colonnes.

ASTELEHENA  
 ASTEARTEA  
 ASTEAZKENA  
 OSTEGUNA  
 OSTIRALA  
 LARUNBATA  
 IGANDEA

JEUDI  
 LUNDI  
 DIMANCHE  
 MERCREDI  
 MARDI  
 VENDREDI  
 SAMEDI



## Nola da euskaraz?

*Gaur*, igandea, 28, da.  
*Atzo*, larunbata, egun ona.  
*Bihar*, astelehena, 29, egun txarra. Denok lanera!

Hier, yesterday	Aujourd'hui, today	Demain, tomorrow

## Abestia: Alferraren astea

Euskaldunek langile fama dugu, baina... **Abestia entzun** eta osatu hutsuneak.

Écoutez la chanson : vous pourrez constater que notre réputation de travailleurs est surfaite. Complétez le texte, avant ou après avoir écouté la chanson, à votre guise. "Ez goaz lanera" = nous n'allons pas travailler.

### ALFERRAREN ASTEA

Astelehena , jai ondoren \_\_\_\_\_  
Ezer ez egiteko ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.

Asteartea, \_\_\_\_\_ goitik behera.  
Busti egingo gara eta ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.

Asteazkena, osaba \_\_\_\_\_ da.  
Opor egiten dugu eta ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.

Osteguna \_\_\_\_\_ eguna.  
Ospatu nahi dugu eta ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.

Ostirala, \_\_\_\_\_ mina.  
Aspirina harturik bagoaz ohera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.


Larunbata egun erdiko \_\_\_\_\_,  
Egun erdiagatik ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.

Igandea , lantegia \_\_\_\_\_,  
Lan egin nahi baina, ezin joan lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.  
Ez goaz lanera, ez goaz lanera.

Alferra

Amonaren

Euria



Ezkontzen

Haginetako

Itxita

Lana

**Taldeka**

**Asmatu arrazoi gehiago lanera ez joateko.**



Michaelek informazioa nahi du Turismo Bulegoan. Entzun elkarrizketa eta informazioa eskatzen ikasiko duzu.

Michael est à l'Office de Tourisme. Écoutez l'enregistrement et remarquez comment il s'informe.

## Turismo-bulegoan



### entzumena

Entzun testua eta lotu bi zutabeak.

Écoutez la cassette et reliez les termes des deux colonnes.

Pasai Donibane

Ordizian

Mugaritz

Igandean

Gipuzkoa

Bergaratik Ordiziara

Sagardoa

Gazta

Chillida-lekun

jatetxe dotorea da.

Ian asko daude.

herri txiki eta polita da.

Idiazabalgoa da.

ordu erdia dago.

barazkiak eta fruituak daude.

sagarraren zukua da.

Alemaniarra joan nahi du.

bisitatu nahi du.



Aukeratu erantzun egokia. Choisissez la bonne réponse.

Zer behar du Michaelek?

- a- Informazioa behar du.
- b- Auto berria behar du.

Zer bisitatu nahi du Michaelek?

- a- Gipuzkoa bakarrik bisitatu nahi du.
- b- Euskal Herria bisitatu nahi du.

Noiz egin nahi ditu bisitak?

- a- Igandean eta larunbatean.
- b- Asteartean, asteazkenean, ostegunean eta ostiralean.

Zer egin nahi du igandean?

- a- Azokara joan nahi du.
- b- Alemaniara joan nahi du.

Noiz da azoka Ordizian?

- a- Asteartean.
- b- Asteazkenean.

Ordiziara joateko

- a- Bergarara joan behar du.
- b- Ez du autopista hartu behar.

Bazkaldu eta gero, zer egin nahi du?

- a- Museo bat ikusi nahi du.
- b- Akuarioa ikusi nahi du.

Jatetxe dotorean afaldu nahi du?

- a- Bai, jatetxe dotorean afaldu nahi du.
- b- Ez, ez du jatetxe dotorean afaldu nahi.

Mugaritz jatetxeak

- a- Bi izar ditu.
- b- Ez du izarrik.

## Gramatika

## NAHI eta BEHAR aditzak

NAHI Vouloir	BEHAR Avoir besoin, devoir
-----------------	-------------------------------

Aditz hauekin UKAN laguntzailea erabiltzen da. Subjektua NORK da.  
Avec ces verbes on utilise l'auxiliaire UKAN. Ainsi, le sujet est NORK.

<p>Nik ura nahi dut. Zuek janaria nahi duzue. Haurrak telebista ikusi nahi du.</p> <p>Guk dirua behar dugu. Zuk lana behar duzu. Ikasleek azterketa egin behar dute.</p>	<p>Je veux de l'eau. Vous voulez de la nourriture. Le garçon veut voir la télévision.</p> <p>Nous avons besoin d'argent. Tu as besoin de travailler. Les élèves doivent réaliser l'examen.</p>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

## Osatu esaldiak

Écrivez le verbe correspondant.

Guk fruta erosi nahi \_\_\_\_\_.

Lagunek Donostiara joan nahi \_\_\_\_\_.

Guk laranja nahi \_\_\_\_\_.

Haiek euskara ikasi nahi \_\_\_\_\_.

Michaelek infomazioa nahi \_\_\_\_\_.

Zuk zer nahi \_\_\_\_\_?

Guk ez \_\_\_\_\_ gazta nahi.

Nik marrubiak nahi \_\_\_\_\_.

Anak ez \_\_\_\_\_ frutarik nahi.

Guk ez \_\_\_\_\_ ogirik nahi.

Haiek sagardoa nahi \_\_\_\_\_.

Zuk ez \_\_\_\_\_ sagardorik behar.

Txakolinak ez \_\_\_\_\_ asko balio.

Zuek ez \_\_\_\_\_ joan nahi.

Nik euskara ikasi nahi \_\_\_\_\_.

Guk ez \_\_\_\_\_ hori behar.

Nik bananak nahi \_\_\_\_\_.

Zuek gozokiak nahi \_\_\_\_\_.



## Itzuli

## Traduisez les phrases.

## NAHI IZAN

Les travailleurs veulent des vacances.

Vous ne voulez pas d'eau, vous voulez un rafraîchissement.

Je ne veux pas ce livre, je veux celui-là.

Vous voulez des poivrons.

Pedro ne veut pas venir.

## BEHAR IZAN

Les professeurs ont besoin de lunettes.

Vous n'avez pas besoin de lunettes.

Nekane a besoin d'une nouvelle voiture.

Mes filles n'ont pas besoin d'argent.

J'ai besoin d'argent.





## mintzamena

### Zer egin behar du Michaelek?

Orain bi zutabeak lotu behar dituzu. Ariketak erantzun bat baino gehiago ditu. Nahi baduzu, zuk ere asmatu erantzunak.

Reliez les phrases des deux colonnes, en répondant à la question suivante : "zer egin behar du?".

L'exercice admet plus d'une réponse et vous pourriez même en ajouter de nouvelles. Ce qui permettra d'enrichir l'exercice et votre niveau de basque. Voyons qui trouvera le plus grand nombre de réponses.

#### Zer egin behar du?

- Michaelek informazioa nahi du.
- Larunbatean deskantsatu nahi du.
- Igandean elizara joan nahi du.
- Ordiziako azoka ikusi nahi du.
- Gazta ona jan nahi du.
- Sagardoa edan nahi du.
- Museora joan nahi du.
- Lugaritz jatetxera joan nahi du.

- Autobusa hartu
- Dirua izan
- Dotore jantzi
- Ez du planik egin
- Garaiz oheratu
- Informazio bulegora joan
- Lagunak ikusi
- Ordiziara joan
- Paseatzera joan
- Sagardotegira joan
- Txartela erosi






## Michaelen astea

Michaelek oporrak aprobetxatu nahi ditu. Hau da bere agenda. Irakurri eta esan: Zer egin nahi du?

Michael veut profiter de son séjour au Pays Basque. Regardez son agenda et répondez à la question : Zer egin nahi du Michaelek?



Osatu zure agenda eta kontatu taldeari.

Complétez votre agenda et expliquez-en les détails au groupe.





Erantzun galderei BEHAR IZAN aditza erabiliz.

Répondez aux questions en utilisant le verbe BEHAR IZAN. Voyons combien de réponses différentes sont trouvées par le groupe.

Bidaia egin nahi dut. Zer egin behar dut? \_\_\_\_\_

Bazkaldu nahi dut. Zer egin behar dut? \_\_\_\_\_

Buruko mina dut. Zer egin behar dut? \_\_\_\_\_



Zinemara joan nahi dut. Zer egin behar dut? \_\_\_\_\_

Giltzak ahaztu ditut. Zer egin behar dut? \_\_\_\_\_

Pneumonia dut. Zer egin behar dut? \_\_\_\_\_

Egin horrelako bi galdera:

Proposez deux nouvelles questions sur le même modèle :



Erantzun ikaskideen galderak.

Répondez aux questions des autres.





## entzumena

ENTZUN ELKARRIZKETAK ETA ERANTZUN GALDEREI.  
Écoutez les conversations et répondez aux questions.

# Elkarrizketak



**Autobus geltokian**



**Erietxean**

## Aukeratu erantzun egokia

Noiz dago Mikel autobus-geltokian?

- a) Gauean.
- b) Goizean.

Zer nahi du Mikelek?

- a) Medikuarekin hitz egin.
- b) Katarroa sendatu nahi du.

Nora joan nahi du?

- a) Londonera.
- b) Parisa.

Nora joan nahi du?

- a) Amerikara joan nahi du.
- b) Afrikara joan nahi du.

Noiz dago autobusa?

- a) Larunbatean.
- b) Igandean.

Txertoa hartu nahi du?

- a) Ez, ez du hartu nahi.
- b) Bai, hartu nahi du.

Zenbat txartel nahi ditu?

- a) Txartel bat nahi du.
- b) Bi txartel nahi ditu.

Noiz hartu behar du txertoa?

- a) Joan aurretik.
- b) Joan ondoren.

Non joan nahi du?

- a) Aurrean joan nahi du.
- b) Atzean joan nahi du.

Noiz hartu nahi du txertoa?

- a) Ostegunean hartu nahi du.
- b) Ostiralean hartu nahi du.



## binaka

Irakurri elkarrizketa rolak banatuta, saiatu elkarrizketa erreproduzitzen.  
Lisez les textes suivants en changeant de rôles. Ensuite, essayez de reproduire la conversation.

**Autobus geltokian.**

- Gabon!
- Baita zuri ere!
- Zer behar duzu?
- Txartela erosi nahi dut.
- Ederki, nora joan behar duzu?
- Londonera joan nahi dut.
- Bi egun itxaron behar duzu, igande arte ez dago autobusik.
- Konforme!
- Zenbat txartel nahi dituzu?
- Bat, mesedez.
- Nola bidaiatu nahi duzu, aurrean ala atzean?
- Aurrean, mesedez!
- Nola ordaindu behar duzu?
- Esku diruarekin.
- Bidaia ona izan!
- Esker mila!

**Erietxean.**

- Kaixo, arratsalde on!
- Bai, zer nahi duzu?
- Sendagilearekin hitz egin nahi dut.
- Zer behar duzu, bada?
- Afrikara joan nahi dut eta sendagilearekin hitz egin behar dut.
- Txertoa hartu duzu?
- Ez, ez dut hartu, baina hartu nahi dut.
- Txertoa joan aurretik hartu behar duzu.
- Badakit, horregatik nago hemen.
- Txertoa ostegunean hartu behar da.
- Ostegunean ez nago, nik ostiralean hartu nahi dut.
- Sentitzen dut, baina txertoa ostegunean hartu behar da.
- Beno, beno, ostegun arte orduan.
- Ondo segi!



Elkarrizketak osatu  
Complétez les conversations.

### Bidaia-agentzian

- Kaixo, Senegalera joan nahi dut. Zer behar \_\_\_\_\_?
- Beno, lehenengo pasaporteia egin behar duzu.
- \_\_\_\_\_, eta txertorik behar dut?
- Bai, garrantzitsua da. Txertoak hartu behar \_\_\_\_\_.
- Mila esker, \_\_\_\_\_!




**agur  
dituzu  
dut  
ondo**

- Arratsalde on, Hegoa bidaiak.
- Bai, arratsalde on. Argentinara joan nahi \_\_\_\_\_.
- Oso ondo. \_\_\_\_\_ joan nahi duzu?
- Bueno... orain.
- Orain? Orain garai txarra da. Urtarrilean joan behar \_\_\_\_\_.
- Ondo, eta \_\_\_\_\_ egin behar dut?
- Beno, erreserba egin behar duzu.
- Aizu, baina nik Perito Moreno \_\_\_\_\_ nahi dut.
- Horretarako beste hegazkin bat erreserbatu behar duzu.
- Oso \_\_\_\_\_. Agur!



**dut  
duzu  
ikusi  
noiz  
ondo  
zer**

- Bidaia Tours, bai esan!
- Kaixo. Gure alaba Txinan \_\_\_\_\_,
- eta etxera etorri nahi du. Zer egin behar \_\_\_?
- Badu txartelik?
- Ez, ez. Txinan \_\_\_\_\_ behar du?
- Ez, lasai. Hemen posible da. Noiz etorri \_\_\_\_\_ du?
- Laster.
- Beno, bada, orduan ordaindu behar du.
- Ondo da, non ordaindu behar \_\_\_\_\_?
- Hemen.
- Ados, oraintxe bertan!
- Mila esker, \_\_\_\_\_.



**adio  
dago  
du  
dugu  
erosi  
nahi**



## ariketa

Ordenatu esaldiak eta osatu elkarrizketa.  
Ordonnez les phrases pour reconstituer le dialogue.




## SAGAR DOTEGIAN

- Postrerik jan behar duzue?
- Zenbat zarete?
- Kaixo, gabon!
- Ederki!
- Lekurik badago?
- Bai, gazta eta intxaurreak.
- Zer jan nahi duzue?
- Baita zuei ere!
- Zazpi.
- Bakailao tortilla eta txuleta, mesedez!
- Bai, mahai honetan, mesedez.
- Ez, eskerrik asko!
- Piperrik nahi duzue?

## Testua osatu

Jarri testua biñetei  
Mettez un texte aux illustrations.

## Tabakorik bai?



Ba al duzu tabakorik?

Bai, baina dirurik ere ez dut.

Berriz hemen!

Euro bat nahikoa izango da.

Ez, baina hor badute. Joan eta erosi.

Honek du aurpegia!

Sua...

Tori, baina ez agertu gehiago!

Zenbat balio du zigarro paketeak?

Zer nahi duzu orain?

Osatu elkarrizketa

Marta eta Lucia tabernan daude. Osatu elkarrizketa.  
Marta et Lucia sont dans un bar. Complétez leur conversation.

## Tabernan

BADUZUE DA  
DITUT DU  
DUT DUZU  
GARA NAIZ  
TABAKORIK



- Gabon, Lucia!
- Gabon, Marta, ondo?
- Bai, oso ondo. Primeran!
- Nahi \_\_\_\_\_ kaferik?
- Ez, kaferik ez dut nahi. Nahiago dut Gin-tonic bat. Aizu, baduzu\_\_\_\_\_?
- Bai, zer nahi duzu Camel ala Marlboro?
- Nahiago dut Marlboro, Camel oso gogorra \_\_\_\_\_.
- Urduri zaude?
- Bai, urduri nago. Dirua behar \_\_\_\_\_ eta ez dut dirurik.
- Zenbat nahi duzu?
- 150 € behar\_\_\_\_\_.
- Lasai, neska, nik badut dirua. Orain egon lasai, nik utziko dizut. Ikusi duzu mutil hori? Gurekin hitz egin nahi\_\_\_\_\_.
- Polita da: ile luzea du, begi urdinak, beso indartsuak, irribarre alaia, baina ez da nire tipoa.
- Bada, nik horrelako tipo bat nahi dut. Ui, hona dator!
- Kaixo neskak, Tomas \_\_\_\_\_, Bilbokoa. Nor zarete zuek?
- Gu Lucia eta Marta. Donostiakoak \_\_\_\_\_. Kaferik nahi duzu?
- Ez, kaferik ez, nik tabakoa nahi dut. \_\_\_\_\_tabakorik?
- Bai, tori!





## binaka

Orain, lan zailagoa duzu. Osatu elkarrizketa eta, ondoren, konparatu zure lana eta ikaskidearena.

Ça commence à se compliquer ! Vous devez compléter le dialogue suivant. Ensuite, comparez-le avec celui de votre partenaire.

### Euskaltegian

- Arratsalde on!
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_ ?
- Informazioa behar dut.
- Zer maila egin nahi duzu?
- \_\_\_\_\_ .
- Ondo, laugarren maila badago. Noiz hasi nahi duzu?
- Ostegunean hasi nahi dut.
- Konforme, ez dago arazorik.
- Zenbat denbora egon nahi duzu euskaltegian?
- \_\_\_\_\_ .
- Hiru aste ez da denbora luzea, baina...
- Eskerrik asko eta ostegun arte.
- \_\_\_\_\_



### Informazioa eskatzen

Binaka edo taldeka jarrita, leku bat aukeratu eta elkarrizketa asmatu. Ondoren, ikasgelaren aurrean irakurri edo antzeztu.

En groupe ou deux par deux, choisissez un lieu et rédigez une conversation. Ensuite, vous devrez la lire ou la représenter devant le groupe.

**Kiroldegian**

**Zineman**

**Museoan**

**Eskolan**

**Ertzain-etxean**

**Liburutegian**



## etxerako lana

Ikusi irudiak, eta egin esaldiak. Gogoratu "Zer egin behar du Michaellek?" ariketa.

Observez les images et faites des phrases. N'oubliez pas l'exercice : "Zer egin behar du Michaellek?".

### Zer behar dute?



**Abestu  
Bidaia  
Borroka egin  
Ogitartekoa jan**

**AHOTS ONA DIRUA  
EZPATA  
LAGUNAK  
MIKROFONOA OGIA  
MOTXILA TRAJEA  
TXARTELA TXOKOLATEA  
????????**

### Deklinatu hitzak.

Déclinez les mots.

Haur\_\_\_ ile luzea du. Neska\_\_\_ oso jatorra da. Neska\_\_\_ Donostian bizi dira. Koldo\_\_\_ oso langilea da. Koldo\_\_\_ez du dirurik behar. Córdoba Argentina\_\_\_ dago. Chirac Frantzia\_\_\_ da eta Frantzia\_\_\_ bizi da.

Mutil\_\_\_ panpina nahi du. Mutil\_\_\_ panpinak nahi dituzte. Mutil\_\_\_ jatorrak dira. Gu\_\_\_ ez gara Brasil\_\_\_ bizi. Gu\_\_\_ janaria nahi dugu. Emakume\_\_\_ oso langilea da. Emakume\_\_\_ bi seme-alaba ditu. Emakume\_\_\_ lan handia dute. Guk ez dugu lan\_\_\_\_. Baduzue paper\_\_\_ etxean? Gu\_\_\_ ez dugu hori nahi? Zer behar dute ikasle\_\_\_? Patxi\_\_\_ bidaia egin nahi du.

## Jarri aditza

Gu ez \_\_\_\_\_ hor bizi. Lagunek oporrak nahi \_\_\_\_\_. Ni Santiagokoa \_\_\_\_\_ . Victor Limakoa \_\_\_\_\_. Zuek ez \_\_\_\_\_ joan nahi. Ba \_\_\_\_\_ (zuk) tabakorik? Ez, ez \_\_\_\_\_ (nik) zigarrorik.

Oscar eta Dunia San Paulon bizi \_\_\_\_\_. San Paulon Euskal Etxe handia \_\_\_\_\_ haiek. Guk euskara ikasi nahi dugu.

Nik ez \_\_\_\_\_ tabakorik behar. Lagunek ariketak nahi \_\_\_\_\_. Guk deskantsatu nahi \_\_\_\_\_. Hau ez \_\_\_\_\_ zaila.

## Jarri pluralean azpimarratua dagoen sintagma. Ikusi adibidea:

Mettez au pluriel le syntagme en caractère gras. Observez les exemples :

**Irakasleak** lana du.  
Irakasleak **lana** du.

**Irakasleek** lana dute.  
Irakasleak **lanak** ditu.

**Gizonak** bibote luzea du.

Neskak **koadernoak** du.

Gizonak **etxe polita** du.

**Honek** autoa du.

Horrek **autoa** du.

Nik **lana** dut.

Etxeak **balkoi polita** du.

**Etxeak** balkoi polita du.

Zuk **ahizpa** duzu.

**Neskak** ahizpa du.



idatzi

Osatu zure agenda. Hurrengo klasean irakurri behar duzu.  
Complétez votre agenda et n'oubliez pas de le lire au prochain cours.

*Nik astelehenean joan nahi dut...*



## Ikasgai honetan hau ikasi duzu:

- Turismo Bulegoan informazioa eskatzen.  
Se renseigner à l'Office de Tourisme.
- Elkarrizketa xumeak egiten.  
Avoir des conversations simples.
- Informazioa ulertzen.  
Comprendre certaines informations.
- Asteko egunen izena.  
Les noms des jours de la semaine.
- Galderak eta ezezko esaldiak egiten.  
Poser des questions et construire des phrases négatives.
- NAHI eta BEHAR aditzak.  
Les verbes NAHI IZAN et BEHAR IZAN.



## Ezagutu Euskal Herria

### Bizkaia

Zer ezagutu nahi duzu? Gernikako zuhaitza. Bizkaiko kostaldea izugarria da: Bermeoko Gaztelugatxe, Elantxobe. Urkiolako natur parkea, senargaia edo emaztegaia aurkitu nahi baduzu.

Omako basoa Ibarrolaren margoekin. Gorbeia mendia. Bilboko Guggenheim museoa.



BIZKAIA: mendia eta itsasoa, basoak eta hondartzak, metroa eta txalupak, txakolina eta legatza!

## Gipuzkoa

Gipuzkoa oso lur euritsua eta berdea da. Txindoki, Aizkorri, Ernio, Murumendi, Uzturre mendiak zoragarriak dira.



Aralarko parke naturala. Itsasaldean Donostiako irla eta Zarauzko, Debako eta Zumaiako hondartzak.

Arantzazuko santutegia, Loiolako Santutegia. Eta noski, Astigarragako sagardotegiak, sagardo fresko-freskoa eta txuleta ederrak daude!

## Nafarroa

Nafarroa ezagutu nahi duzu? Nafarroa oso handia da.

Nafarroako iparraldea oso berdea da, eta hegoaldea, gorri-gorria. Baztango baserri ikusgarriak. Erronkariko gazta. Iratiko basoa. Xabierko gaztelua eta Leireko monasteriora.



Iruñeko harresia. Ikusi nahi duzu Nafarroako lur lehorra? Bai, Nafarroako Bardeak eta Fiteroko bainuetxea. Urederraren jaiotza.

## ETORRI NAFARROARA!

## Araba

Arabako lautada. Lautada zoragarria, patata soroak ditugu Arabako lautadan.

Arabar Errioxako ardoa dastatu behar dugu. Ezin dugu ahaztu Añanako gatzaga, gatza era naturalean lortzen dute.

Gasteizen Eusko Jaurlaritza dago eta artearen hiria da.

Gasteizen museo asko daude, arte museoa, naipe museoa e.a. Gasteizko jaietan oso giro ona dago, abuztuan dira jaiak, ongi etorri Gasteizko jaietara!



**Ipar Euskal Herria:**

LAPURDI, ZUBEROA, BEHE NAFARROA



Ipar Euskal Herria bisitatu behar baduzu, ahaztu gabe Larun mendia, Baiona Tipia, Donibane Garazi, Zuberoako maskarada, Miarritzeko kasinoa, Abbadie gaztelua eta Donibane Lohitzuneko hondartzak ikusi behar dituzu.

Iparraldeko baserriak zoragarriak dira eta herri txiki asko daude. Sarako kobazuloak ikusi nahi badituzu, Sara herrira joan behar duzu. Iparraldeko gozokiak probatu behar dituzu!

